



Lana / La obra

Aita bat, lau emazte eta hogeita lau senideko familia kikuyu batean jaio zen Ngũgĩ wa Thiong'o, Limurun (Kenya), 1938an. Haurtzaro xume bezain zoriontsua darama mutikoak, britainiarren koloniaren mendean bizi denik ia ohartu gabe. Pixkanaka, ordea, aldaketa ugari hasiko dira gertatzen bere inguruan, eta, adinean aurrera egin ahala, are handiagoa izango da horien eragina bere bizitzan, urruneko itzal gisa ikusten zuen inperioaren bortizkeria eta haren kontrako altxamenduen ondorioak etxe-zokoraino sartuko baitzaizkie laster.

Haurtzaroko oroitzapenen bilduma honetan ez dira falta jaioterriko paisaiaren eta jendearen gaineko deskribapen zehatz eta koloretsuak, ez eta tradizio eta kultura kikuyuenak ere. Haur zeneko begirada berreskuratu du egileak bere istorioaz eta testuinguru sozio-politikoaz idazterakoan: jakinminezko begirada, irrealia eta erreala biak bat egiten dituen, magiaren boterean sinesteari utzi ez dion haurrarena; ezeren gainetik, amets egiteari inoiz uzten ez dion mutiko baten begirada.

Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Gerra garaiko ametsak**
Egilea / Autor: **Ngũgĩ wa Thiong'o**
Saila / Colección: Literatura Unibertsala, 177
ISBN / EAN: 978-84-9109-421-0
Salneurria / Precio: 16 € (BEZ barne – IVA incluído)
Orri kopurua / N° páginas: 296
Formatua / Formato: Rustika / Rústica - 13 x 19,5 cm
Materia: Helduentzako literatura - Literatura para adultos



Egilea / El autor

Ngũgĩ wa Thiong'o idazle afrikar entzutetsuenetako bat da. 1938an Kenya kolonialean jaioa, txiki-txikitatik nabarmendu zen hitzaren erabileran. Mutiiri, kikuyuz idatzitako lehen egunkariaren sortzailea, Kaliforniako Unibertsitateko (Irvine) Ingeles Filologia eta Literatura Konparatuko irakaslea da egun. 1964an, *Weep not, child* (Negarrik ez, haurra) eleberria idatzi zuenetik, asko dira egileak argitaratu dituen eleberriak, bai eta antzerki-obra, saiakera eta haurrentzako ipuinak ere. James Ngũgĩ gisa sinatu zituen lehen lanak, harik eta, 1969an, jatorrizko izen afrikarra berreskuratu zuen arte.

Itzultzailea / Traductor

Olatz Prat Aizpuru (Azpeitia, 1984). Giza-zientziak: komunikazioan lizentziatu zen. Lanbide anitzetan ibilia da, kazetaritzan, besteak beste, hainbat urtez. Gerra garaiko ametsak du lehen literatura-itzulpena.

